

ARRAROA

Testua: Ainara Azpiazu


Irudiak: Paula Estévez



XI. ETXEPARE SARIA (2017)

ISBN 978-84-9172-007-2. Pamiela

Kartoi gogorrean koadernatua. 20,5 x 25,5 cm. 38 or. 14 €



Arraroa egiten zait
lehenengo pisuko bizilagunaren leihoan
peluka hori bat
zintzilik ikustea beti.

Egileek modu bikainean elkartu dituzte hitza eta irudia.
Testuaren bidez egoerak aurkeztu ahala, irudien bidez
egoera horiek bizia hartzen dute, umorea lagun eta
detaileei arreta jarrita. Hizkuntza biek originaltasuna,
indarra eta askatasuna erakusten dute. Kolore biziek,
berriz, areagotu baino ez dute egiten lanari darion bizipoza.

ARRAROA lan ausarta eta grafikoki interesgarria da.

Album ilustratuaren definizioari trebeki heltzen dio: testua
irudiaren bidez osatzen da, eta baita alderantziz ere. Tonua
album guztian mantentzea lortzen du, liburu orekatua
lortuz.

Album ilustratu honek estereotipoak alboratzeko

proposamen umoretsua eskaintzen digu eta, aldi berean,

irakurleoi gogoeta egiteko aukera helarazten.

[Etxepare Sariko epaimahikideen hitzak]

■ **Gaia:** aniztasunaren onarpena.

■ **Adin egokia:** 5 urtetik aurrera.

■ **Nabarmentzeko moduko datuak:** Topikoen kontrako
kritika, bizikidetzeta, desberdinen arteko harremanak,
aurrejuzku sexistak etab.

Ainara Azpiazu, *Axpi*

Hernanin jaioa, 1980ean, marrazkilaria da. Soziologia lehenengo
eta gero Arte Ederrak ikasi zituen EHUn. Ondoren, Italian Ars In
Fabula, Master in illustrazione per l'Editoria ilustrazio Masterra
burutu zuen.

2007tik aurrera ilustraziogintza, komikigintza, horma-irudigintza
eta ume eta gazteekin tailerrak egitetik bizi da. Ilustratzaile gisa
hainbat liburu eta argitalpen plazaratu ditu dagoeneko. Azkenen
artean daude *Nahla* (Ibaizabal), *Printzesa pixontzia* (Elkar),
Hartz izozkijalea (Minis) edo *Mozoloaren bidea* (Dobera).
Komikigintzan berriz, besteak beste, Hernaniko Kronika, Irrien
lagunak eta Gararen Zazpika gehigarrian kaleratzen ditu binetak
gaur egun, beti berak egindako gidoiekin.

Horma-irudi ugari egin ditu, Donostialdean bereziki.

Umore grafikoa eta komikigintza gai modura hartuta tailerrak
burutzen ditu ume eta gazteekin, Hernaniko Andre kalean duen
tailerrean.

Arraroa da idazle gisara argitaratzen duen lehen liburua.

<http://ainaraxpi.blogspot.com.es/>

Paula Estévez

Donostian jaioa, komiki-marrazkilaria eta ilustratzailea da.

Argazkigintza eta ikus-entzunezkoetan espezializatutako Arte
Eder ikasketak amaitu ondoren, Berlinera joan zen bizitzera, non
marrazketa berreskuratu zuen, txikitako grina.

Ordutik bere lana komiki, ilustrazio eta animaziora zuzendu du,
autoedizioan indar berezia ipiniz. Donostiara itzultzean, Mikel
Larraioz eta Maite Caballero marrazkilariekin batera, Guillotina
sortu zuen, Donostiako lehen autoedizio topaketa. Lau egin dira
jada.

2011tik hona autoeditatutako sei argitalpen egin ditu eta
aldizkari eta fanzine hainbatetan ikus daiteke bere lana:
Gaztezulo, Hijos Acabados, Berlin Scrawling, So International
Zine, besteak beste.

www.paulaestevez.com



Tel.: 948 326 535 / soltxate@pamiela.com

www.pamiela.com